

## **Kutxabankek funts alternatiboen aldeko apustua egin du Talde-ren % 63 erosita**

- **Arrisku-kapitaleko kudeatzailearen garapena bultzatuko du, bere inbertsiorako eta merkaturatzeko ahalmenak indartuta**
- **Kudeaketa independentea izaten jarraituko du, Talderen zuzendaritza lider duela, kudeatzailearen kapitalaren % 7arekin**
- **Finantza-erakundearen Wealth Managment alorra indartu eta garatzeko estrategiaren baitan egin da erosketa**

**2024ko urriaren 25ean.-** Kutxabankek Talde Gestion-en % 70 erosteko akordioa hitzartu du, eta honekin konpromiso argia du, hazten ari den aktibo alternatiboen merkatuaren aldeko apustu garbia eginez. Aldi berean, bankuan Talderen zuzendaritzari kapitalaren % 7 salduko dio, eta kudeaketa-sozietatea gidatzen jarraituko du.

Erosketa Kutxabanken Wealth Managment alorra garatu eta indartzeko strategiaren baitan egin da, bai eta inbertitzaile instituzional eta norbanakoei babes ematen jarraitzeko ere. Gainera, erakundeak Euskadiko finantzen alorrean tresna sofistikatuagoak sustatzeko ezarri duen strategiarekin bat egiten du.

Talde Gestión-en lan taldeak eta ibilbideak Kutxabanki esperientzia eta ezagutza eskaintzen dizkio arrisku-kapitalaren alorrean, eta bankuak, berriz, arrisku-kapitalaren kudeatzaileari bere bilakaeran lagunduko dio, inbertsio eta merkaturatze gaitasunak indartuta. Horrela, aktibo alternatiboen plataforma funtsezko tresna bihurtuko da inbertsio estrategia erakargarriak dituzten tresnak diseinatzeko, bai kudeaketa-sozietatearen egungo inbertitzailearentzat, nola Kutxabanken bezeroentzat.

Talde bat egiten du Kutxabank Taldearen filosofia eta inbertsio-estrategiarekin: inbertsio dibertsifikatuak ditu alorrei zein kokapenari dagokienez, eta partaide dituen enpresetan balioa sortzeko grina du, gainera. Hori guztia, enpresa-proiektuaren ebaluazio profesionala egin ondoren.

### **Inbertsio estrategian eta kudeaketa independentean lerrokatuta**

Honela, Kutxabankek kudeatzailearen inbertsio-estrategiaren ezaugarri bereizgarriak mantendu eta indartuko ditu, bere inbertitzaileek balioetsi baitituzte. Finantza-taldearekin partekatzen duen beste ezaugarrietako bat da kontutan hartzen dituela ESG (Ingurugiro, Gizarte eta Gobernantza) irizpideak inbertsioen azterketa eta jarraipen prozesuak egiterakoan.

Talde kudeaketa independentea izango du, bere profesionalak gidatutakoa, enpresa-transakzioen eta *middle marketeko* enpresen kudeaketan ibilbide arrakastatsua baitute. Gainera, bankuaren berezko alor indartsuenen babes jasoko dute, besteak beste, arriskuen kudeaketan. Gaur egun, Taldek 370 milioi eurotik gora kudeatzen ditu 21 enpresek osatzen duten inbertsio-zorroaren bitartez.

Kutxabankek Talde Gestion-en gehiengoa duen partaidetza eskuratzeko akordioa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean (CNMV) aurkako ebazpenik ez jasotzearen menpe dago.

**Enpresen garapenari laguntzea**

Talde 1976an Euskal Herriko enpresaburu eta tokiko finantza erakunde talde batek bultzatutako ekimena da. Arrisku Kapitalaren Legea onartu ondoren sortu zen Talde Gestion, eta Espainiako kapital pribatuko alorrean kudeatzaile aitzindarietako bat izan zen.

Inbertsio-sozietatearen jarduera enpresen garapenari laguntzea da, batez ere ETE-ei, hauei finantza-baliabideak eskainiz eta nazioarteko egitasmoetan hazkunderako baliabideak eskainiz, bai eta beren alorretan sendotzeko proiektuak ere. Enpresen kontrola edo/eta partaidetza garrantzitsuak izanik, Talde hurbileko kudeaketan aritzen da, zuzendaritzako taldeekin duen lankidetzaren bitartez.

Kudeatzaileak bi jarduera-esparru ditu: Kapital Pribatuaren bidez partaide dituen konpainien kapitalean esku-hartzen du; eta Zor Pribatuko arloan enpresei epe luzerako finantzaketa pertsonalizatua eskaintzen die.

Talde inbertitzaile instituzionalen (pentsio-funtsak, BGAE-k, aseguru-etxeak eta inbertsio fondoak) eta familia-enpresa talde garrantzitsuen oinarri sendoa du.

**Kutxabanki buruz**

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.